

Azken eskutitza

Euskaldunon Egunkaria, 1994-08-30: 2.

Euskal Herriko historia bestek idatzi digute askotan, eta bere alde, noski, eta gure aurka. Azken urte hauetan hasiak gara gure gertaerak aztertu eta idazten. Zatika, askotan, baina zatiek egiten dute osoa. Andoainek ere badu, iratzarraldi honetan, meriturik, gure memoria berpizteko eta duguna erne edukitzeko, beste medioen artean aldizkari bat sortu du; Leyçaur, Andoainen izen zaharra. Bigarren alean eranskin dokumentala dakar, eta bertan, beste lan interesgarrien artean, 1936an herrian fusilatua izan ziren hamasei pertsonen artean, Secundino Anton, Plazaola tren txikiaren faktore zenak, hil zuten bezperan bere emazteari erdaraz idatzi zion eskutitza. Ez dugu osorik itzultzeko lekurik, baina bai mamiko batzuk: 1936go urriaren 18an idatzia dago, eta "Juanita maitea"ri zuzendua. "Kristau etsipena", "Jainkoaren borondate saindua", eskatzen dio larrialdi honetan, "haurrak ondo hezitzeko, aitaren memoria errespetatzeko, ez dezatela epaitu errudun bezala, martiri bezala baizik". Senideek lagunduko diotela, eta "batez ere, Jainko Gure Jaunak, honek bai ez dizula inoiz abandonatuko; zu emazte ona izan zera, eta nere erruak barkatu", "barkatu nere borroroei, neuk barkatzen dieten bezala". "Orain, egin esaten dizudana: Altzariak eta arropak alabentzat, eskuturreko erlojua zuretzat, Konpainiak zor dizkidan 150 pezetak ere. Irakurri Cartilla Militarrean idatzia dihoan guztia, eta ikasiko duzu zertaz zalatzen nauten, eta nortzuk. Barkaiezu! Har zazu zure senar denaren azken besarkada. Secundino".